BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, MENDEKOTASUNA DUTEN LEGAZPIKO ADINEKOENTZAKO EGUNEKO ZENTROAREN ZERBITZUA KONTRATATZEKO

I. HELBURUA

Hauxe de agiri honen helburua: mendekotasun-egoeran dauden Legazpiko adinekoentzako eguneko zentroaren zerbitzua emateko bete behar diren baldintza teknikoak finkatzea.

II. ZERBITZUAREN HELBURU OROKORRA

Hauxe da zerbitzuaren helburu orokorra: mendekotasun-egoeran dauden adinekoei egunez arreta indibidualizatua eta integrala ematea, baldin eta ezin badiete behar bezala ase beren premiak beren ohiko ingurunean, muga fisiko eta/edo psikiko handiak dituztelako eguneroko bizitzako jarduerak egiteko. Azken finean, beren autonomia pertsonala hobetzea edo mantentzea, beren muga funtzionalak konpentsatzea eta ohiko zaintzaileei laguntzeko prestazio prebentibo, gaitzailea eta asistentziala ematea da eskainiko den zerbitzuaren xedea.

Zerbitzua honako printzipio orokor hauetan oinarrituta emango da: normalizazioa, autonomia, parte-hartzea, integrazioa, arreta pertsonalizatua, globaltasuna eta profesionaltasuna.

Hauek izango dira jardueren hartzaileak:

a) Erabiltzaileak:

- Autonomia pertsonalerako eta harremanetarako dituzten potentzialtasunak garatu eta mantenduko dira, esku hartzeko eta harremanetarako inguruneak sortzeko programen bidez. Programa horiek garapen-aukerak eta erabakietan parte hartzeko aukerak emango dizkiete erabiltzaileei, horiek gauzatzeko behar duten laguntzarekin.
- Beharrezko euskarriak eman edo eskainiko zaizkio zaintza, arreta, segurtasun, … eta beste alderdi batzuei dagokienez, laguntza behar duen pertsonari.
- Neurriak hartuko dira artatuko diren pertsonen balizko narriadura fisiko eta

CSV: 07E900091781O0T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E900091781O0T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan
SINATZAILEA - DATA
XABIER ALBIZU GONZALEZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 26/09/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/09/2025 10:44:35
EXPEDIENTE :: 2025KIRO00012
Esp.Data: 26/09/2025
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

psikikoari aurre egiteko, zentroko eta komunitateko jardueretan parte har dezaten bultzatuz.

b) Erabiltzaileen familiak:

- Familiei arreta emateko programak garatuko dira, haien parte-hartzea erraztuz eta artatutako pertsonarekiko harremana sustatuz.
- Laguntza emozionala, instrumentala eta informazioa emango zaie, artatutako pertsonarekin ahalik eta harreman egokiena izateko.

c) Komunitatea:

Zentroa, bertako profesionalak eta zerbitzuak erreferentziazko ardatz izango dira komunitate-ingurunerako, mendekotasunaren arretari dagokionez, eta, horretarako, komunitateari irekitako jarduerak sustatu beharko ditu.

III. ZERBITZU MOTA ETA PLAZA KOPURUA

a) Definizioa:

Eguneko zentroaren helburu nagusia da mendekotasun-egoeran dagoen adineko pertsonei eta haien familiei arreta egokia eskaintzea, pertsonen autonomia bultzatuz eta beraien bizi-kalitatea hobetuz.

Berariazko helburuak:

- Pertsonen eta haien familien premiei erantzutea, haien autonomia hobetzeko programa egokien bidez.
- Mendekotasun-egoeran dagoen adinekoak bere etxean eta bere ohiko ingurunean jarrai dezan ahalbidetzea.
- Erabiltzaileen familiei behar duten laguntza eta aholkularitza ematea, arreta eta bizi-kalitatea hobetzeko.

b) Zein kolektibori zuzentzen zaion:

Eguneko zentroa, nagusiki, Gizarte Politiketako Departamentuak mendekotasun-egoeran dauden pertsonatzat kalifikatutako 65 urtetik gorako pertsonentzat izango da, indarreko balorazio-eskalaren arabera, edo 60 urtetik gorakoentzat, desgaitasuna duten pertsonen kasuan.

Salbuespen gisa, adinekoentzako eguneko zentroen erabiltzaile izan ahalko dira, adierazitako adina bete ez duten, mendetasun-egoera onartuta duten eta,

CSV: 07E900091781 00T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan
SINATZAILEA - DATA
XABIER ALBIZU GONZALEZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 26/09/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/09/2025 10:44:35
EXPEDIENTE :: 2025KIRO00012
Esp.Data: 26/09/2025
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

zirkunstantzia pertsonal edo sozialengatik, horrelako zentroetan ematen duten arretaren onuradun izan daitezkeen pertsonak. Kasu horietan ezinbestekoa izango da aldez aurretik aldeko txosten mediko eta soziala izatea.

Era berean, autonomo gisa baloratutako pertsonek ere eskuratu ahal izango dute zerbitzua, administrazio eskudunek zerbitzu horretan arreta egokia ematea egokitzat jotzen dutenean.

Nolanahi ere, Gizarte Politiketako Departamentuko Balorazio, Orientazio eta Kalifikazio Zerbitzu Teknikoek aitortuko dute pertsona horiek zerbitzuan sartzeko gaitasuna dutela.

c) Plaza kopurua eta modalitateak:

Hauxe da zentrorako aurreikusitako plaza-kopurua:

- 24 plaza astelehenetik ostiralera.
- 18 plaza asteburuetan eta jaiegunetan.

Nahiz eta, hasiera batean, eguneko zentroak udalerrian bizi diren erabiltzaileei emango dien arreta, mugakide diren beste udalerri batzuetan bizi diren erabiltzaileak esleitu ahal izango zaizkio, hau da, azpieskualde berean bizi direnak, eta enpresa esleipendunarentzako baldintza ekonomiko berdinetan.

IV. ZERBITZUEN ZEHAZTASUNAK

Hauek dira eman beharreko zerbitzuak:

a) Ostalaritza zerbitzuak

- Janaria berotu eta zerbitzatzea, mahiak prestatu eta jasotzea: eguneko zentroko esleipendunak pertsona erabiltzaileei janaria berotzeko eta zerbitzatzeko ardura izango du. Otorduetako janariaren hornitzailea udalak erabakitakoa izango da. Eguneko zentroko esleipenduna janariaren hornitzailearekin koordinatu behar izango da. Horrezaz gain, eguneko zentroko esleipendunak, pertsona erabiltzaileek erabilitako sukaldeko tresneria eta mahaiak prestatu eta jaso beharko ditu.

- Zentroko guneak garbitzea.
- Eguneko zentroko elementu materialak mantentzea eta konpontzea.
- Telefono zerbitzua.
- Zentroko eta erabiltzailearen berezko elementuak garbitzea.

b) Oinarrizko arreta pertsonaleko eta eguneroko bizitzara egokitzeko zerbitzua

- Pertsona bakoitzaren balorazio orokor bat eta diagnostiko bat egingo da.

CSV: 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2

LEGAZPIKO UDALA

Dokumentu hau egiazkoa dela 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA

XABIER ALBIZU GONZALEZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 26/09/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/09/2025 10:44:35

EXPEDIENTE :: 2025KIRO00012
Esp.Data: 26/09/2025
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

Egindako hori banakako arreta-plan batean jasoko da eta norberaren autonomia hobetzea eta gaitasunen mantentzea ahalbidetzea izango da helburua, honako hauen bitartez:

- Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza-programak, hala nola:
  - Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak gainbegiratzea eta haiek egiteko laguntza eskaintzea: garbitzea, elikatzea, joan-etorriak, mugikortasuna, eguneroko trebezietan entrenatzea.
  - Inkontinentzia tratatzea.
  - Sendagaiak ematea
- Portaeraren nahasmenduari eusteko programak. Gehiegizko jokabidea eta/edo inhibizioa tratatzea, eusteko laguntza eskainiz.

c) Osasun zerbitzuak

Zentroa Legazpiko Osasun-zentroarekin koordinatu beharko da, Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzutik beharrezko arreta medikoa eta erizaintzakoa eman ahal izateko.

d) Zerbitzu psikosozialak

- Banaka eta taldeka, laguntza pertsonala eta tratamendua eskaintzea arlo

CSV: 07E900091781 00T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2

LEGAZPIKO UDALA

Dokumentu hau egiazkoa dela 07E900091781 00T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA

XABIER ALBIZU GONZALEZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 26/09/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/09/2025 10:44:35

EXPEDIENTE :: 2025KIRO00012
Esp.Data: 26/09/2025
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

guztietan.

- Funtzio kognitiboetan esku hartzeko programak: psikoestimulazioa, oroimena entrenatzea, errealitatera egokitzea, terapia okupazionala eta/edo prestakuntzakoa.
- Funtzio psikoafektiboetan eta portaerazkoetan esku hartzeko programak.
- Hezkuntzan, kulturan eta aisialdian esku hartzeko programak.

e) Informazioa, arreta eta parte-hartzea

Zentroak informazioa eskaintzeko eta parte hartzeko sistemak izan behar ditu:

- Maila orokorrean: zentroari buruzko orri informatiboak, zerbitzuen karta, barne-araudia, jarduera-programen egutegia, erabiltzaileen eta familien gogobetetzea ebaluatzeko sistemak, kexak, iradokizunak eta erreklamazioak jasotzeko prozedura, erabiltzaileen parte-hartzea bultzatzeko bideak.
- Maila indibidualean: banakako kontratuak, pertsona erabiltzaile bakoitzaren espedienteak, banakako plana egiteko eta haren jarraipena egiteko parte-hartze sistema.
- Familiari egunero egindako jakinarazpenaren partea, zentroko egonaldiaren alderdi esanguratsuenak eta gertatutako gorabeherak jasotzen dituena.

Legazpiko Udaleko Gizarte Zerbitzuen Departamentuak zerbitzuen funtzionamenduan aldaketak sartzea proposatu ahal izango du; halaber, pertsona erabiltzaileen beharretara egokituko diren zerbitzu alternatiboak eskaintzeko aukera proposa dezake.

Era berean, I. eranskinean zerrendatutako funtsezko prozesuetarako eta jardun-eremuetarako ezarritako zehaztapenak eta jardunbide egokiak bete beharko dira, eguneko zentroko zerbitzu bati aplikatzekoak diren neurrian.

V. EGUN KOPURUA, ORDUTEGIA ETA ARRETA-MODALITATEAK

Egun kopurua:

Urteko egun guztietan prestatuko da zerbitzua, urtarrilaren 1ean eta abenduaren 25ean izan ezik.

Hala ere, bi modalitate egongo dira:

CSV: 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
XABIER ALBIZU GONZALEZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 26/09/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/09/2025 10:44:35

EXPEDIENTE :: 2025KIRO00012
Esp.Data: 26/09/2025
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

a) Lanegunak:

Astelehenetik ostiralera bitarteko egunak sartzen dira, jaiegunak izan ezik, urteko hilabete guztietan. Beraz, benetako zerbitzu-egunen kopurua plaza guztietarako lan-egutegi ofizialaren araberakoa izango da.

b) Asteburuak eta jaiegunak:

Gainerako egunak hartzen ditu, hau da, asteburuak eta jaiegunak.

Ordutegia:

Oro har, arretarako gutxieneko ordu kopurua 6 ordukoa izango da egunean, eta 8:00etatik 20:00etara bitartean eskainiko dira.

Hauxe izango da ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera: 9:30etik 18:00etara.
- Asteburuak eta jaiegunak: 11:30etik 20:00etara.

Zentrora iristeko eta bertatik irteteko ordutegiak garraio-zerbitzuaren arabera zehaztuko dira.

VI. SARBIDEA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak ezarriko du erabiltzaileen zerbitzurako sarbidea, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendetasun-egoeran dauden pertsonak egoitza-zerbitzuetan eta eguneko zentroetako zerbitzuetan sartzeko araubidea arautzen duen martxoaren 24ko 7/2015 Foru Dekretuan (GAO, 2015/03/30) edo hura ordezten duen araudian ezarritakoaren arabera.

Plaza bat hutsik geratuko den momentuan, itxaron zerrendan dagoen pertsona bati esleituko zaio, eta zerbitzuaren beharrak eta hutsik geratu den plazaren ezaugarriek erabakiko dute plaza hori nori esleitu. Kontratistak konpromisoa hartzen du indarreko prozeduraren arabera izendatutako pertsonei arreta emateko.

Erabiltzaile izaera berrikusi ahal izango da, eta izaera hori galtzea erabaki ahal izango da haren hasierako egoera aldatu delako.

CSV: 07E900091781O0T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2

LEGAZPIKO UDALA

Dokumentu hau egiazkoa dela 07E900091781O0T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA

XABIER ALBIZU GONZALEZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 26/09/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/09/2025 10:44:35

EXPEDIENTE :: 2025KIRO00012
Esp.Data: 26/09/2025
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

VII. PLAZEN SAILKAPENA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA

a) Plazen sailkapena

Gizarte Politiketako Departamentuak plazen sailkapen hau aitortzen du:

- **Betetako plaza:** pertsona jakin bati, zerbitzura sartzen den unetik beretik esleitzen zaion plaza.
- **Erreserbatutako plaza:** esleitua izan arren oporraldiak direla medio, ospitale-zentro batean ingresatua izateagatik edo antzeko beste arrazoiren batengatik okupatu gabe geratzen den plaza.
- **Okupatu gabeko plaza:** inolako erabiltzaileri esleitu gabeko plaza.

b) Araubide ekonomikoa

- **Betetako plaza:** Lehenengo egunetik, indarrean dagoen tarifaren baliokidea kobratzeko eskubidea sortuko du.
- **Erreserbatutako plaza:**
  - Borondatezko absentzia denean: Plaza erreserbatutako zentroan huts egindako lehen egunetik aplikatuko da, baldin eta horren berri zazpi egun lehenago jakinarazten bazaio zentroari. Aldez aurretik abisatu gabe huts egiten bada, zazpigarren egunetik aurrera aplikatuko da.

    Erreserba gutxieneko 7 egun naturaleko eta ez 45 egun baino gehiagoko aldirako aplikatu ahal izango da, urte natural bakoitzeko.
  - Erreserba ospitaleratzeagatik, osasun arazoengatik edo antzeko beste arrazoiren batengatik: zazpi egun natural baino lehenago zentroari jakinarazi bazaio, erreserba absentziako lehenengo egunetik aplikatuko da. Modu ustekabekoan edo larrialdi gisa gertatzen bada, zazpigarren egunetik aurrera aplikatuko da.

    Egoera horretan, plaza erreserbatzeko eskubidea zazpi egunekoa izango da gutxienez eta laurogeita hamar egunekoa gehienez ere, baina epe hori luzatu ahal izango da txosten zurigarri baten bidez.

    Plazaren erreserba aplikatuko den egunetan, esleipendunak indarrean dagoen tarifaren % 75 jasoko du; portzentaje hori Gipuzkoako Foru

CSV: 07E900091781O0T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E900091781O0T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan
SINATZAILEA - DATA
XABIER ALBIZU GONZALEZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 26/09/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/09/2025 10:44:35
EXPEDIENTE :: 2025KIRO00012
Esp.Data: 26/09/2025
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

Aldundiaren ekarpenari eta erabiltzailearen ekarpenari aplikatuko zaio.

- **Okupatu gabeko plaza:** Halakotzat hartuko dira inongo pertsonari esleitu ez zaizkiolako hutsik dauden pleguetako plazak. Ez du eskubide ekonomikorik sortzen.

VIII. EGOKITZAPEN-ALDIA ETA GORABEHERAK

a) Egokitzapen-aldia

Eguneko zentroko erabiltzaileen egokitzapen-aldia eta araubidea hiru hilabetekoa izango da.

Egokitzapen-aldian, zentroko zuzendaritzak edo, hark eskuordetuta, erabiltzailearen erreferentziazko pertsonak erabiltzailearekin edo bere ordezkoarekin komentatuko dituzte sortzen diren arazoak eta egokitze ona lortzeko beharrezko soluzioak bilatuko dira.

Epe hori igaro eta, hainbat arrazoiengatik, egokitzapen egokia lortu ez bada, zentroak txosten bat egin beharko du egokitzapen-ezaren arrazoiak azalduz eta horren berri eman beharko dio Legazpiko Udalari.

b) Gorabeherak

Zerbitzuan gertatzen diren gorabeherak, erabiltzaileen behin betiko edo aldi baterako alta eta bajei dagozkienak, Legazpiko Udalari jakinaraziko dizkio kontratistak, gorabehera horiek gertatu eta 2 eguneko epean.

Behin betiko bajatzat hartuko dira erabiltzailearen heriotzak edo borondatezko bajak eragindakoak, edo Gizarte Politiketako Departamentuak aintzat hartutako beste inguruabar batzuek eragindakoak.

Zerbitzuaren garapen egokiari eragiten dion beste edozein gorabehera ere (erabiltzailearen profila aldatzea, harreman-gatazkak, kuotak ez ordaintzea, zailtasunak garraio-zerbitzuetan, etab.) ahalik eta lasterren jakinarazi beharko da.

IX. GIZA BALIABIDEAK ETA ANTOLAKETA

Eguneko zentro bakoitzak IV. klausulan definitutako zehaztapenak betetzen direla bermatzeko adina langile eta azpiegitura izango ditu. Bestalde, aurreikusitako zerbitzuak

CSV: 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan
SINATZAILEA - DATA
XABIER ALBIZU GONZALEZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 26/09/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/09/2025 10:44:35
EXPEDIENTE :: 2025KIRO00012
Esp.Data: 26/09/2025
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

behar bezala emateko behar den antolaketa-egitura aurreikusi beharko du kontratistak, eta bizi-kalitatea hobetzea oinarrziko helburua izango da, zerbitzuen erabiltzaileei dagokienez.

Esleipendunak, gutxienez, inoren laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren I.8 eranskinean ezarritako langile-ratioak betetzen direla bermatu beharko du. Era berean, zerbitzuak modulutan antolatu beharko ditu, arreta egokia eta banakako gainbegiratzea ahalbidetzeko, segurtasun-alderdiak autonomia-alderdiekin, hautatzeko aukerekin eta erabakiak hartzearekin uztartuta.

Erabiltzaile bakoitzak erreferentziazko profesional bat izango du, banakako arreta-planaren xehetasunak, zirkunstantzia pertsonalak eta pertzepzio subjektiboa ezagutzeko. Era berean, banakako arreta-plan horren erabakietan eta planaren berrikuspenetan aktiboki parte hartuko du.

Nolanahi ere, kategoria hauetako profesionalak izan beharko ditu:

- Begirale okupazionala.
- Gizarte-langilea.
- Psikologoa.

Eskaintzak antolaketa-proposamen bat aurkeztu beharko du, lanegunetako eta jaiegunetako langile asistentzialekin.

X. LANGILEEN PRESTAKUNTZA

Langileek behar adinako prestakuntza izango dute, IV. atalean zehaztutako zerbitzuak modu egokian prestatzeko.

Zentroetako zuzendariek unibertsitate-titulua izan beharko dute, eta prestakuntza osagarria jasota izan beharko dute mendetasunaren arretarekin eta/edo gerontologiarekin lotutako jakintza-arloetan.

Langile teknikoen hasierako prestakuntza, eguneratzea eta etengabeko prestakuntza enpresa esleipendunaren kontura joango dira.

Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunerako Estatu Idazkaritzaren 2017ko abenduaren 11ko Ebazpenarekin bat etorriz, (zeinak Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta

CSV: 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2

LEGAZPIKO UDALA

Dokumentu hau egiazkoa dela 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA

XABIER ALBIZU GONZALEZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 26/09/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/09/2025 10:44:35

EXPEDIENTE :: 2025KIRO00012
Esp.Data: 26/09/2025
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluaren Erabakia, Autonomia eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren zentro eta zerbitzuen kalitatea bermatzeko egiaztatze-irizpide komunei buruzko 2008ko azaroaren 27ko Akordioa partzialki aldatzen duena argitaratzen duen), zaintzaileek eta gerokultoreek mendekotasuna duten pertsonei gizarte-erakundeetan arreta soziosanitarioa emateko urriaren 19ko 1368/2007 Errege Dekretuak ezarritako lanbide-kualifikazioa egiaztatu beharko dute, hura garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Horretarako, honako titulu eta ziurtagiri hauek hartuko dira kontuan:

- Apirilaren 7ko 546/1995 Errege-dekretuan ezarritako Erizaintzako zainketa osagarrietako teknikariaren titulua, edo titulu baliokideak, hala nola, klinikako teknikari laguntzailea, psikiatriako teknikari laguntzailea eta erizaintzako teknikari laguntzailea, apirilaren 30eko 777/1998 Errege-dekretuan ezarriak, edo, hala badagokio, ondorio profesional berberekin argitaratzen den beste edozein titulu.

- Azaroaren 4ko 1593/2011 Errege-dekretuan araututako mendekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta eskaintzeko teknikariaren titulua, edo maiatzaren 2ko 496/2003 Errege-dekretuan ezarritako arreta soziosanitarioko teknikariaren titulu baliokidea, edo, hala badagokio, ondorio profesional berberekin argitaratzen den beste edozein titulu.

- Uztailaren 13ko 1074/2012 Errege-dekretuan ezarritako Gizarte-integrazioa goi-mailako teknikariaren titulua, edo abenduaren 22ko 2061/1995 Errege-dekretuan ezarritako Gizarte-integraziorako goi mailako teknikariaren titulu baliokidea, 2017-12-30ean zaintzaile edo gerokultore kategoria profesionalean lanean ari diren profesionalentzat.

- Abuztuaren 1eko 1379/2008 Errege-dekretuan araututako mendeko pertsonei gizarte-erakundeetan arreta soziosanitarioa emateko profesionaltasun-ziurtagiria, edo, hala badagokio, ondorio profesional berberekin argitaratzen den beste edozein ziurtagiri.

Lanbide-kualifikazioei buruzko baldintzak Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasunaren Estatu Idazkaritzaren 2017ko abenduaren 11ko Ebazpenean aurreikusitakoaren arabera eskatu ahal izango dira. Ebazpen horren bidez, Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde

CSV: 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2

LEGAZPIKO UDALA

Dokumentu hau egiazkoa dela 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA

XABIER ALBIZU GONZALEZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 26/09/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/09/2025 10:44:35

EXPEDIENTE :: 2025KIRO00012
Esp.Data: 26/09/2025
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

Kontseiluaren Akordioa argitaratzen da.

XI. LANGILEAK AUKERATZEA

Ordezkapen-kontratazioak egitean, lizitatzaileek honako alderdi hauek hartu beharko dituzte kontuan:

- Esperientzia antzeko lanetan.
- Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ezagutzea.

XII. BARNE- ETA KANPO-KOMUNIKAZIOAK ETA IRUDI KORPORATIBOA

Oro har, agiri hauetan jasotako jardueren berri emanez zentro eta zerbitzu bakoitzak egingo dituen komunikazioetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuaren eta Legazpiko Udalaren izenak jasoko dira.

Era berean, zentroko identifikazio- eta seinaleztapen-elementu guztiek, paperek, uniformeek eta irudia izan dezaketen gainerako euskarriek Gizarte Politiketako Departamentuak eta Legazpiko Udalak zentrorako definitutako identitate bisuala islatuko dute.

XIII. ZENTROAREN KOKAPENA ETA EZAUGARRIAK

Legazpiko Eguneko Zentroa Latxartegi kaleko 2. zenbakian dago.

XIV. INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUA

Zentroko ondasun higigarrien inbentarioa erantsiko da kontratuaren eranskin gisa.

XV. INFORMAZIO SISTEMAK

1.- Asistentzia kudeatzeko informazio-sistema:

Kontratistak artatutako pertsonei buruzko informazioa jasoko duten erregistroak sortu edo mantendu beharko ditu, gutxienez, honako atal hauetan:

- Identifikazio-datuak, datu ekonomikoak eta beste datu batzuk (heriotza-polizak, gizarte-segurantza (edo OTI), bankuko datuak, sarrera-eguna,….)

CSV: 07E900091781O0T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E900091781O0T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan
SINATZAILEA - DATA
XABIER ALBIZU GONZALEZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 26/09/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/09/2025 10:44:35
EXPEDIENTE :: 2025KIRO00012
Esp.Data: 26/09/2025
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

- Historia klinikoa: diagnostikoa, aurrekariak eta tratamendua (medikazioa, sendaketak eta prebentziozko jarraibideak). Medikuek egindako balorazioak (analisi klinikoak, balorazio nutrizionalak,….) eta izan ahal dituen ospitaleratzeak. Datu guzti horiek historikoak behar dute izan. Datu horiei psikologikoak gehitu beharko litzaizkieke (egindako proben historikoa), baita jasotzen ari den tratamendu psikologikoa ere.
- Erreferentziazko espezialistak ere jaso behar dira (Barne-medikuntza, psikiatria, urologia,….).
- Egun behar dituen oinarrizko zainketak: dieta-mota, xurgatzaile-motak, erabiltzen diren laguntza teknikoak (garabiak, finkagarriak), ezarritako erizaintza-jarraibideak (errehabilitazio txikiak,….), erabilitako kontrolak eta erregistroak,….
- Historia soziala: senideak (eta harreman-mota), ezintasuna edo ez eta tutoretza, zaletasunak, jardueretan eta talde terapeutikoetan parte hartzea, zentroan izan dituen gorabeherak, azken nahiak,….

Nolanahi ere, informazio-sistemak behar den informazioa jaso beharko du, baldintza-agiri honen II. eranskinean zehazten diren estandarrak uneoro betetzen direla bermatzeko eta egiaztatzeko. Informazioa denbora errealean erregistratuko da eta eskuragarri egongo da.

Informazio hori Legazpiko Udalarekin partekatuko da, kontratuaren indarraldi osoan, eta administrazio kontratatzaileari lagako zaio kontratuaren indarraldia amaitutakoan.
Kontratista lagatzaileak ezin izango du gorde datu horien kopiarik, eta kontratuaren arabera arreta eman dien pertsonei buruzko datuekin bere ekipo informatikoetan dauden fitxategi guztiak ezabatzen direla bermatu beharko du.

Informazio hori euskarri informatikoan erregistratuta egon beharko da datu-base "estandar" batean, eta datu horiek aplikazio berri batera esportatzeko aukera eman beharko du. Hala ere, Gizarte Politiketako Departamentuak egokitzat jotzen badu, sistema informatiko jakin bat erabiltzeko betebeharra ezarri ahal izango dio kontratistari, bai esperimentala bai tresna estandarra, aldez aurretik hautatua, egokia delako zentro propioen eta/edo itunduen sarean oro har erabiltzeko. Kasu horretan, kontratistak

CSV: 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan
SINATZAILEA - DATA
XABIER ALBIZU GONZALEZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 26/09/2025 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/09/2025 10:44:35
EXPEDIENTE :: 2025KIRO00012
Esp.Data: 26/09/2025
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

datuak bere aplikaziotik lekualdatzen direla bermatu beharko du, edo, are gehiago, aplikazio berrira migratzen dela, inolako kontraprestaziorik eskatu gabe. Hala ere, Gizarte Politiketako Departamentuak horretarako egokitzat jotzen dituen bitarteko teknikoak jarriko ditu.

2.- Extranet eta Gizanet:

Esleipendunak Gipuzkoako Foru Aldundiko zaintza departamentuko informazio sistemak erabili beharko ditu, baita haiek elikatu ere. bereiziki Extranet eta Gizanet sistemak.

XVI. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHAR EKONOMIKOAK

Esleipendunaren kontura izango dira zerbitzuaren edukiarekin lotutako gastu guztiak eta ondorengo atalean espresuki kanpo utzi ez diren guztiak. Edozelan ere, ondoko hauek izango dira, besteren artean esleipendunaren kontura joango diren gastuak:

- Bere zerbitzura egongo diren langileak kontratatzea.
- Zerbitzuaren funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren ondasunak eta zerbitzuak erostea.
- Eguneko Zentroa kokatuko den lokaleko konponketak, mantentze-lanak eta egon daitezkeen beharrak asetzea. Modu berean, esleipendunaren kontura joango dira zerbitzua eskaintzeko aldez aurretik berak jarri dituen tresnak eta instrumentuak berrezartzearen gastuak.
- Zentro horien mantentze-gastuak (argindarra, gasa, ura, telefonoa, segurtasun-elementuak, hondakinen bilketa, garabi jasotzailea, edukiaren asegurua, etab.). Kontsultatu agiri administratiboaren IV. Klausula. Bai eta arduraren dituen langileek beren zereginak behar bezala betetzeko behar dituzten baliabide teknikoak ere, hala nola ordenagailuak, informatikako eta bulegoko materiala, telefono finkoak eta mugikorrak, etab.
- Garbiketa-zerbitzua.

XVII. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Kontratazioaren ondorioz esleipendunak izaera pertsonaleko datuak eskuratu behar dituenez, eta datu horien tratamenduaren arduraduna erakunde kontratatzailea denez, enpresa hori izango da tratamenduaren arduraduna. Kontratatistak Izaera

CSV: 07E900091781007K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E900091781007K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan
SINATZAILEA - DATA
XABIER ALBIZU GONZALEZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 26/09/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/09/2025 10:44:35
EXPEDIENTE :: 2025KIRO00012
Esp.Data: 26/09/2025
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

Pertsonaleko Datuak babesteari buruz abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren Hogeita Seigarren Xedapen gehigarrian eta Legea garatzen duen arauetan jasotako obligazioak bete beharko ditu.

Zerbitzua ematen ari den bitartean zein ondoren, berariaz debekatuta izango du bertan emandako eta bildutako datuak eta informazioak erabiltzea, laguntza teknikoa ematea ez den beste edozein helburutarako.

Enpresak neurri egokiak hartu beharko ditu datuen bortxaezintasuna, konfidentzialtasuna eta zaintza ziurtatzeko, eta ezingo ditu inola ere laga edo jakinarazi, ez eta erabili ere kontratu honetan aurreikusitako helburuetarako ez bada. Ildo horretan, enpresa esleipendunak datuen konfidentzialtasuna urra dezakeen edozein gorabeheraren berri eman beharko dio departamentuari.

Enpresa esleipendunak espedientean agertzen diren datu pertsonalak edo txostenak zabaltzen ez direla bermatu behar du, bai eta datu pertsonalak eta bereziki sanitarioak babesteari dagokionez indarrean dagoen araudia betetzen dela ere.

XVIII. KONTRATUAREN JARRAIPENA EGITEKO BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA.

Eguneko zentroaren enpresa esleipenduna arduratuko da Legazpiko Udalari kontratuaren betearazpenaren jarraipena egiteko behar den dokumentazioa aurkezteaz. Beharrezko dokumentazio hori guztia III. eranskinean dago jasota eta Legazpiko Udalak eskainiko ditu hura osatzeko beharko diren agiri-ereduak.

CSV: 07E900091781O0T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5OOZ2

LEGAZPIKO UDALA

Dokumentu hau egiazkoa dela 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA

XABIER ALBIZU GONZALEZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 26/09/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/09/2025 10:44:35

EXPEDIENTE :: 2025KIRO00012
Esp.Data: 26/09/2025
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

CSV: 07E900091781O0T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5OOZ2

LEGAZPIKO UDALA

Dokumentu hau egiazkoa dela 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA

XABIER ALBIZU GONZALEZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 26/09/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/09/2025 10:44:35

EXPEDIENTE :: 2025KIRO00012

Esp.Data: 26/09/2025

Ordua: 00:00

Und. reg: REGISTRO GENERAL

I. ERANSKINA. EGUNEKO ZENTROETAKO ARRETAKO FUNTSEZKO PROZESUEN ZEHAZTAPENAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK

ARLOA	EGITURAZKO ELEMENTUA	PROZESUAREN ADIERAZLEAK EDO EMAITZA	ESKURATZE-ITURRIA
HARRERA ETA SARRERA	Sartzeko protokolo bat eta izendatutako arduradun bat daude.	Erabiltzaileen banakako espedienteek sartu aurreko elkarrizketaren erregistroa eta behin-behineko Banakako Arreta-plana hartzen dute barne.	Historia soziala eta historia sozio-sanitarioa
BALORAZIOA ETA BANAKAKO ARRETA-PLANAREN DISEINUA	Banakako Arreta-planaren eredu bat dago, honakoak sartzen dituena: balorazio fisikoa, funtzionala, burukoa eta sozio-familiarra; helburuak, arduradunak eta epe estimatuak.	Zentroan 2 hilabete baino gehiago daramaten erabiltzaileek behin-behineko ez den banakako arreta-plan bat dute, ereduaren arabera idatzia.	Banakako Arreta-plana dokumentua.
		Erabiltzaileek banakako arreta-plan bat dute, azken 12 hilabeteetan eguneratua. Sei hilean behingo berrikuspenak	Banakako Arreta-plana dokumentua.
ZAINTZA PERTSONALA ETA EGUNEROKO BIZITZA	• Sistematika argia eta trazagarria dago, zer laguntzailek ematen dion arreta zein pertsonari, haren aldizkakotasuna eta zaintzei buruzko egiaztapena esleitzeko. ○ Egunerokoak ○ Ez egunerokoak	Ahora emanda jaten duten pertsonen kopurua eta zerrenda.	Asistentzia-erregistroak.
		Dieta bereziak eta osagarri nutrizionalak dituzten pertsonen kopurua eta zerrenda.	Asistentzia-erregistroak.
		Inkontinentzia-pixoihalak erabiltzen dituzten pertsonen kopurua eta zerrenda, pixoihal moten arabera banatuta.	Asistentzia-erregistroak.

CSV: 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2

LEGAZPIKO UDALA
Dokumentu hau egiazkoa dela 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA
XABIER ALBIZU GONZALEZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 26/09/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/09/2025 10:44:35

EXPEDIENTE :: 2025KIRO00012
Esp.Data: 26/09/2025
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

	○ Beste zerbitzuetara sarbidea • Zaintzak ematean izandako gorabeheren partearen koaderno bat dago. • Murrizketa fisikoen protokolo bat dago. • Jardunbide Egokiaren Eskuliburu bat dago laguntzaileentzat. • Zentroak mediku-aginduz tratamendu bereziren bat duten pertsonen datu egiaztagarriak identifikatu eta eman ditzake.	Mugitzeko hainbat laguntza tekniko behar dituzten pertsonen kopurua eta zerrenda.	Murrizketa fisikoen erregistroa, mugitzeak garabia erabiliz, gurpildun aulkiak,…
		Gorabeheren partea bete egiten da, eta norberaren zaintzarekin eta eguneroko bizitzarekin lotutako gorabehera garrantzitsuak jasotzen ditu. Sinatu egiten da eta oharrak jaso dituzten pertsonak identifikatzen dira.	Gorabeheren partea
		Ausaz aukeratutako egoiliar batzuen banakako arreta-planak eta haien zainketen hedapena, gauzatzea eta zaintzak egiaztatzeak argi uzten du lan-sistema betetzen dela. Erreferentziazko profesionala zein den identifikatzen da.	Erabiltzaile bakoitzaren Banakako Arreta-plana.
ARRETA SOZIALA	• Definituta daude erabiltzaileen historia sozialak egunean izateko hasierako edukia eta bete beharreko dokumentazioa. • Protokolo idatziak edo jarduera-gidak daude erabakitzeko gaitasunean mugak dituzten pertsonen	Egoiliarrek eguneratuta dute beren historia soziala, datu pertsonal eta soziofamiliarrekin	Erabiltzaileen historia soziala.
		Legez ezgaituta dauden pertsonen kopurua eta zerrenda (ezgaitasuna edo kuradoretza). Historia indibidualak tutorearen izena jasotzen du eta ezgaitasunaren irismena dokumentatuta dago.	Erabiltzaileen historia soziala eta lotura espezifikoa

CSV: 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2

LEGAZPIKO UDALA

Dokumentu hau egiazkoa dela 07E90009178100T7K2T9M8F3G5E1B9E5Y9P5O0Z2 kodearekin egiazta daiteke ondorengo Entitatearen Egoitza Elektronikoan

SINATZAILEA - DATA

XABIER ALBIZU GONZALEZ(-Ayuntamiento de Legazpi - Legazpiko Udala)-Gizarte langilea - 26/09/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 26/09/2025 10:44:35

EXPEDIENTE :: 2025KIRO00012
Esp.Data: 26/09/2025
Ordua: 00:00
Und. reg: REGISTRO GENERAL

	legezko ezgaitasunari eta izendatutako arduradunari dagokienez. • Erabiltzaileen familiekiko harremanetarako protokolo bat dago, bai ospitaleratu aurreko fasean, bai ospitaleratu bitartean eta ondoren. • Idatzizko protokolo bat eta izendatutako arduradun daude erreklamazioak eta iradokizunak jaso eta tratatzeko. • Boluntariotzako protokolo bat dago eta izendatutako arduraduna, indarrean dagoen legediaren araberakoa. Erregelamenduak erabiltzaileen eta familien ordezkaritza-organoaren osaera eta funtzionamendua definitzen ditu.	Erabiltzaileen familiekiko harremanetarako protokolo bat dago, bai sartu aurreko fasean, bai ondoren ere.	Familiekin izandako elkarrizketen, topaketen kopuruaren erregistroaliares
		Erreklamazioen eta iradokizunen erregistro bizia dago, eta horiei emandako tratamendua eta itxiera agerian uzten ditu.	Erreklamazioen erregistroa
		Boluntariotzako protokolo bat dago eta izendatutako arduraduna, indarrean dagoen legediaren araberakoa.	Dokumentu zehatza
		Zentroak zentroko ordezkaritza-organoen funtzionamenduaren aktak aurkezten ditu.	Bileren aktak
